



AURKAZERENA

BAKAR BIDEA

Gu Ane Saratxo, Ana Puertas eta Haizea Goikoetxea gara eta "Bakarbidea" izeneko aplikazioa sortu dugu. Lagun talde bat gara, eta gaur egungo gizartearentzat baliagarriak izango lirakeen zerbitzuei buruz eztabaidatzen egon ondoren, konturatu gara, emakumeok, etxera bakarrik bueltatzen garenean, beldurra sentitzen dugula. Nori ez zaio gertatu etxera itzultzean giltzak hartzea gerta daitekeenaren beldurrez? Egoera jasanezin honi soluzio bat bilatzea erabaki dugu eta horretarako, aplikazio bat sortu dugu.

Gero eta maizago errepikatzen dira jazarpena, erasoak, lapurreta, eta gertakari horiek herritarrengan sortzen duten beldurra eta mesfidantza handituz doa. Egia da emakumeok pairatzen ditugula gehien beldur handia sortzen duten egoera horiek. Hori dela eta, erabaki dugu tresna bat sortzea, herritar guztiei eta bereziki emakumeei laguntzeko, lehen aipatutako mehatxuren bat jasateko aukeraren aurrean beldurra kudea dezagun.

Momentu batzuetan bakarrik sentitzen gara eta ez dakigu zer egin harrapatzen gaituen beldur hori kentzeko. Pertsona batekin elkarriketa bat izatea edota telefono-dei simple bat, beldurra hori murriztu eta lasaitasuna bilatzeko moduak izan daitezke.



Arazo hau konpontzeko, "BAKAR BIDEA" izeneko app bat sortu dugu, hainbat funtzio izango lituzkeena:

- 1.- Laguntza digitalerako aukera. Bizikidetzaren sustatzea.
- 2.- Ibilbide bera egiten duten hainbat erabiltzaile harremanetan jartzeko aukera.
- 3.- Geolokalizatzeko aukera.

4.- Larrialdi-egoeretan poliziaren berehalako presentzia eskatzeko aukera.

Tresna digital honen helburua herritarrei denbora errealean behar duten laguntza ematea da une kritiko bat gainditu ahal izateko, bai fisikoki bai beldur psikologiko



baten aurrean. Askotan, ohituta ez gauden egoeren aurrean, ez dakigu nola erantzun, eta, beraz, botoi bat sakatzearekin bakarrik lagun diezagukeen beste pertsona batekin harremanetan jartzeko aukera izateak lasaitasuna eman diezaguke. Laguntza eguneko edo gaueko edozein ordutan ematen da.

App hau herritar guztiei zuzenduta dago, baina, gure ustez, batez ere gazteek erabil dezakete, tresna digitalen erabilerarekin ohituta baitaude.

Aplikazioa erabiltzea oso erraza da, irabazi-asmorik gabekoa eta, besterik gabe, beldurrak gainditzeko bakardade-egoerei estaldura emateko ideia bakarrarekin sortu dugu.